


C1 MAILA

20.korrika *aek*



B A D A T O R

Korrikaren ibilbidea

Korrikaren ibilbidea

Ataza honen helburu nagusia da ikasleek 20. Korrikaren ibilbidea eta bestelako informazio garrantzitsua ezagut ditzaten. Aurrekoaz gain, mailari dagozkion hainbat edukiri ere erreparatuko diegu

Helburu horiei guztiei modu atseginez ekiteko, ondoko ataza hau proposatzen dizugu.



Ataza: Korrikaren ibilbidea (4. or.)



Ataza honetan, Gara egunkarian argitaratutako Korrikari buruzko artikulua bat irakurriko dugu, eta falta diren esaldiak bilatu eta euskaraz idatziko ditugu.

Ondoren, Korrikan parte hartzeko lekurik gogokoena aukeratu eta hara joateko planak aurkeztu eta eztabaidatuko dituzte.

Amaitzeko, "Korrikaren ibilbidea" izeneko mahai-jokoa egingo dugu. Joko honetan, Korrikari, euskarari, Euskal Herriari eta euskal kulturari buruz zer dakigun erakutsi beharko dugu.

HELBURUAK

- ▶ 20. Korrikaren ibilbidea ezagutzea.
- ▶ Korrikari, Euskal Herriari eta euskal kulturari buruzko hainbat kontu ikastea.
- ▶ Argudioak ematen trebatzea.
- ▶ Mailari dagozkion hainbat eduki berrikustea.



Mintzatu



Entzun



Bideoa ikusi



Irakurri



Kanta



Jolasa



Idatzi



Ariketa

**ATAZA: Korrikaren ibilbidea****A. Korrikari buruzko artikulua irakurri.**

- Ikasleek, binaka, "Zer jakin nahi duzu Korrikari buruz?" orrialdeko irudiei erreparatuko diete eta Korrikari buruz jakin nahi lituzketen 3-4 galdera idatziko dituzte (4. or.).
- Galderak talde handian egingo ditugu eta, erantzunak, jakinez gero, elkarri emango dizkiote.
- Artikulua irakurri, eta, gaztelaniaz dauden esaldiak itzulita, osatu egingo dute (5.- 6. or.).

ERANTZUNAK:

- (1) Urtarrilaren 23tik aurrera zabalduko da kilometroak erosteko epea.
- (2) Korrikaren 20. edizioaren ibilbidea ezagutarazi zuen atzo AEK-k.
- (3) Ohi bezala, aurreko Korrika amaitu zen herrialdean hasiko da aurtengo edizioa
- (4) ...egun horretan bertan Baionatik igaroko da, 17:24an.
- (5) Mezuaren irakurketa et, a amaierako jaialdiaren hasiera 12:30erako aurreikusita dago.
- (6) Korrikaren 20. edizioa izango da aurtengoa.
- (7) Doinu balkanikoak ekartzen ditu gogora ditu abestiak.

- Talde handian, ariketa zuzenduko dugu eta irakurtzean sortu zaizkigun zalantzak argituko dituzte.

B. Korrikara joateko plana egin.

- Ikasleek, binaka, 7. orrialdeko argazkiak komentatuko dituzte.

ERANTZUNAK:

- (A) 1: Donibane Garazi; 2: Bardeak; 3: Gernika; 4: Donostia; 5: Otxandio; 6: Orreaga.
(B) 1: F; 2: N; 3: C; 4: D; 5: X; 6: K.

- Binaka oraindik, Korrikan parte hartzeko planak pentsatu eta horien aurkezpenak prestatuko dituzte (8. or.).
- Planak talde handian aurkeztu eta denon artean baloratuko dituzte.

C. "Korrika-jokoa" egin.


- Azaldu ikasleei Korrika-jokoaren arauak (9. or.) eta jokatu.

ERANTZUNAK:

Jokoaren erantzun gehienak txarteletan daude azpimarratuta, baina gutxi batzuek txarteletan agertu behar ez dutenez, hona ekarri ditugu:

Korrika-logotipoak:

11. Korrika,



12. Korrika eta



13. Korrika.


Hieroglifoak:

- Zein herri zeharkatuko du Korrikak Iparraldean sartu aurretik? **Irun.**
- Herri hau Korrika baten abiapuntua izan zen. **Andoain.**
- Nola egingo duzu Korrika? **Kohete** batek bezala.
- Zenbat kilometro egingo duzu Korrikan? **Hamaika.**



ZER JAKIN NAHI DUZU KORRIKARI BURUZ?

Begiratu ondoko irudiei eta mintzatu haiei buruz ikaskideekin. Irudiei buruz mintzatu ondoren, pentsa ezazu Korrikari buruz jakin nahi zenukeen zerbait eta idatzi zeure jakin-mina asetzeko galderak.



A. Zer ikusten da irudietan? Zer dakizu horri buruz?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

B. Idatzi Korrikari buruz jakin nahi zenukeena argitzeko 4-5 galdera:

1.
2.
3.
4.
5.



KORRIKAREN IBILBIDEA.




Irakurri ondoko artikulua eta idatzi falta diren atalak euskaraz. Horretarako, falta diren esaldiak aukeratu beharko dituzu eskaintzen direnen artean, eta euskaraz idatzi beharko dituzu.

Udaberrian, Otxandio eta Iruñea lotuko ditu 20. Korrikaren ibilbideak

AEK-k 20. Korrikaren ibilbidearen berri eman zuen atzo, parte hartu nahi dutenek gogokoen duten kilometroa hautatu ahal izateko.

(1).



iparralderantz abiatuko da, Nafarroa Beherera heldu arte. Apirilaren 2an iritsiko da Korrika Donibane Garazi bigarren mugarrira, 11:00 aldera.

Handik, mendebalderantz eginez,

(4); ondoren, ekialderantz joz, Lapurdi eta Nafarroa Beherea zeharkatu, Zuberoara heldu, eta Maule iragango du Korrikak apirilaren 3ko 09:55ean. Berrito mendebalderantz eginez, Nafarroa Beheretik eta Garaitik pasatuko da, eta iparralderantz abiatuko da berrito. Apirilaren 4an, 18:45ean Donostiara helduko da. Hurrengo egunetan, Gipuzkoako eta Bizkaiko kostaldeko

herrietan ibiliko da, eta Bilbora helduko da ostegunean, apirilaren 6an, 16:52an.

Lurralde guztietatik igaro ostean, mendealdetik ekialderako bidea hartuko du berriro lekukoak, eskuz esku, apirilaren 9ko goizean bere helmugara ailegatu arte: Iruñera.

..... (5), Sarasate pasealekuan. Jendetza espero da egun horretan Iruñean, aurreko urteotan bezala.

..... (6), "BatZuk" lelopean ("Bat egitera, zuk egitera, euskaraz"). Kilometroak erreserbatzeko aukera urtarilaren 23an zabalduko dute. Antolatzaileek azaldu dutenez, kilometro zehatza hartzeko eta diru-ekarpena egiteko interesa dutenek onena izango dute Korrika bulegoekin harremanetan jartzea, telefonoz deituz (Hego Euskal Herriatik 94 646 40 00 eta Ipar Euskal Herriatik 05 59 25 76 09) edo mezu elektronikoa idatziz (araba@korrika.eus, bizkaia@korrika.eus, gipuzkoa@korrika.eus, iparraldea@korrika.eus eta nafarroa@korrika.eus).

Kanta ere prest

Atzo ibilbidearen berri eman zuten; aurtengo edizioaren kantaren aurkezpena, berriz, abenduaren 14an egin zuen AEK-k Iruñeko Condestable jauregian. "Zirkorrika" izeneko abestiak lagunduko die Euskal Herriko txokoak lotuko dituzten lasterkariei.

.....
..... (7).

Musikari ezagunek hartu dute parte abestian. Xabier Zabala da musikaren egilea, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ohiko kolaboratzailea. Letraren egilea, oster, Uxue Alberdi bertsolaria da, eta interpretazioan, aldiz, hainbat abeslari eta musikarik hartu dute parte: Izaro, Petti beratarra, Miren Narbaiza Napoka, Jurgi Ekiza Willis eta Afu taldeko Oihana. Jarauta 69 txarangako eta Oreka TX taldeko kideak arduratu dira musika jartzeaz.



► Hutsuneak betetzeko, aukeratu esaldi hauen artean eta euskara itzazu:

- La lectura del mensaje y el comienzo del festejo final está previsto para las 12:30.
- El plazo para la compra de kilometros se abrirá a partir del 23 de enero.
- La canción recuerda melodías balcánicas.
- ... ese mismo día pasará por Baiona a las 17:24.
- La de este año será la vigésima edición de Korrika.
- Ayer AEK dio a conocer el recorrido de la vigésima edición de Korrika.
- Como es habitual, la edición de este año comenzará en la provincia en la que terminó la anterior Korrika.



KORRIKAN PARTE HARTZEKO PLANA



Begiratu ondoko irudiei eta erantzun galderei.

A. Ezagutzen dituzu argazkietako lekuak?

1. _____

3. _____

5. _____

2. _____

4. _____

6. _____



1



2



3



4



5



6

B. Non daude? Begiratu ondoko mapari, eta lotu argazkietako leku bakoitza dagokion letrarekin.

1: _____

2: _____

3: _____

4: _____

5: _____

6: _____



C. Zer dakizu leku horiei buruz? Non daude? Nolakoak dira? Euskaraz mintzatzen da? Noiz igaroko da Korrika bertatik?



Aukeratu, zure herriaz gain, Korrikan parte hartu nahi zenukeen Euskal Herriko lekuren bat, eta prestatu horra joateko plana.

▶ Non hartu nahi zenuke parte?

.....

▶ Zergatik?

.....

.....

.....

▶ Noiz pasatuko da Korrika hortik?

.....

▶ Nola antolatuko duzue irteera (nola joan, zer egin...)?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



Jokoaren helburua.

- ▶ 20. Korrikak egingo duen ibilbideari jarraiki, nor bere fitxa Otxandiotik Iruñera eramatea. Irabazlea izango da Iruñera aurrea heltzen den jokalaria.

Jokoa prestatu.

- ▶ Jokoan hasi aurretik, presta itzazu beharko dituzun osagai guztiak: mapa, txartelak, dadoak, fitxak, "Jokorako ikus-entzunezkoak" (azken hauek komeni da alde aurretik jaistea eta ordenagailuaren pantailan prest izatea behar ditugunean erraz erabili ahal izateko)...
- ▶ Mapa 10. orrialdean duzu. Egin horren kopia handia, A3 neurrikoa, esaterako. Kopia koloretan egin ahal baduzu eta mapa kartoi mehe baten gainean itsasten baduzu, askoz ere txukunago geratuko zaizu.
- ▶ Txartelak 13-20. orrialdeetan dituzu. Lehenengo eta behin, kopiatu eta moztu egin beharko dituzu; ondoren, multzoka jarri beharko dituzu gaika bilduta (euskarari buruzko galderak, geografiari buruzkoak eta Korrikari buruzkoak), eta ahoz behera utzi beharko dituzu maparen ondoan. Txartelak errazago bereizteko, koloretako orrietan kopia ditzakezu: kulturari buruzko galderak, esaterako, orri berdeetan; euskarari buruzkoak, horietan; geografiari buruzkoak, urdinetan; eta Korrikari buruzkoak, laranjetan.
- ▶ Dadoak eta fitxak beste edozein jokotatik atera ditzakezu.


Jokalariak antolatu.

- ▶ Kopuruaren arabera, bakarka, binaka ala hirunaka jokatu dugu: sei jokalaria baino gutxiago bagaude, bakarka jokatu dugu; sei eta hamabi bitartean bagaude, binaka; eta hamabi jokalaritik gora egonez gero, hirunaka.

Jokoaren arauak.

- ▶ Jokoari hasiera emateko, jokalaria guztiek dadoa bota eta zenbakirik altuena ateratzen duenak emango dio hasiera jokoari.
- ▶ Jokalariak dadoa bota eta dagokion laukiraino mugituko du fitxa. Lauki horretan, letra bat aurkituko du: **E** (euskara), **G** (geografia), **K** (Korrika) edo **Z** (zortea). Jokalariak laukiko letrari dagokion txartel bat hartu eta, **berau ikusi gabe, irakasleari emango dio irakur dezan.**
- ▶ **E, G** eta **K** multzoetan, galderak daude: jokalaria galderari zuzen erantzuten badio, dadoa berriro bota ahal izango du; txarto erantzuten badu, ordea, hurrengo jokalaria txanda izango da. Erantzunak txarteletan bertan daude azpimarratuta. Jokalari batek, gehienez, hiru aldiz jarraian bota ahal izango du dadoa. **Txartelean izartxo bat agertuz gero, "Jokorako ikus-entzunezkoak"** karpeta jo eta dagokigun txartelean aipatzen den dokumentua zabalduko dugu.
- ▶ **Z** letradun laukietan eroriz gero, bertan esaten dena egin behar izango du jokalaria. Txartel horietan **hieroglifo bat** ateratzen bada, **minutu bat izango du jokalaria erantzuna asmatzeko**; asmatzen badu, dadoa bota eta aurrera egin ahal izango du; bestela, txanda galduko du.
- ▶ Txartel bat erabili ondoren, sartu berriro dagokion multzoaren behealdean.
- ▶ Fitxa bi ezin izango dira batera lauki berebetean egon; hortaz, jokalari baten fitxa beste batena dagoen laukira iristen bada, aurretik zegoen fitxak atzera egin beharko du ibilbidean zehar, azkenekoz igarotako hiriburura iritsi arte.

OTXANDIO → IRUÑEA



KORRIKA
JOKOA



K

Badakizu nondik nora joan zen lehenengo Korrika?

- a. Andoaindik Baionara.
- b. Urepeletik Bilbora.
- c. Oñatitik Bilbora.

K

Korrikan, egurrezko lekuko bat eramaten da, eskuz esku. Badakizu nork egin zuen lehenengo lekukoa?

- a. Jorge Oteizak.
- b. Remigio Mendiburuk.
- c. Juan Gorritik.

K

Korrika bi urterik behin ospatzen denez, zenbat denbora beharko dugu lau Korrika ikusteko?

ERANTZUNA: 6 urte inguru.
Adibidez: Korrika 16 2009an ospatu zen; Korrika 17, 2011n; Korrika 18, 2013an; eta Korrika, 19, 2015ean. Beraz, lau Korrika sei urtean.

K

Zenbat kilometro egiten dira Korrikan?

- a. 2.100 kilometro inguru.
- b. 1.000 kilometro inguru.
- c. Ia 5.000 kilometro.

K

Korrikan, lekuko bat eramaten da herriz herri. Badakizu zer gordetzen den lekukoaren barruan?

- a. Omenduaren izena.
- b. Mezu sekretu bat.
- c. Ezer ez, lekukoa **trinkoa**¹ da eta.

1. Trinko: macizo:

K

Korrika bakoitzak omendu bana izaten du. Nor omendu zuen azken Korrikak?

- a. Durangoko Azoka.
- b. Euskaltzaindia.
- c. Euskal idazleak.

K

Nork egin zuen lehenengo Korrikaren kanta?

- a. Mikel Laboak.
- b. Iparragirrek.
- c. Xabier Amurizak.

K

Korrika Iruñera iritsi da. Bat-batean, amaitzeko metro batzuk falta direnean, esprinta egin eta bigarren korrikalaria aurreratu duzu. Zein postutan heldu zara helmugara?

ERANTZUNA: Bigarren postuan

K

Nork egin zuen 18. Korrikaren kanta?

- a. Betagarrik.
- b. Esne Beltzak.
- c. Gosek.

K

Begiratu arretaz logotipoari eta esan zein Korrikatakoa den.



(Erantzuna, irakasleak)

K

Begiratu arretaz logotipoari eta esan zein Korrikatakoa den.



(Erantzuna, irakasleak)

K

Begiratu arretaz logotipoari eta esan zein Korrikatakoa den.



(Erantzuna, irakasleak)

K

Hau da 11. Korrikaren leloa.
Nola amaitzen da?

Bat eta bat hamaika...

- a. ... bi eta bi hogeita bi.
- b. ... hemen dator Korrika.
- c. ... zu eta ni euskaraz.

K

Gogoratzen duzu azken
Korrikaren leloa?

- a. Euskalakari.
- b. Euskahaldun.
- c. Eman euskara elkarri.

K

Zenbat Korrika egin dira orain
arte?

- a. 19
- b. 20
- d. 15

K

Zein maiztasunez antolatzen
da Korrika?

- a. Urtero.
- b. Bi urterik behin.
- c. Bisurteetan baino ez.

K

Non ez da inoiz hasi Korrika?

- a. Azpeitian.
- b. Orreagan.
- c. Trebiñun.

K

Korrika-kantak euskal musika-
taldeek eta kantariek egiten
dituzte. Nork ez du egin, orain
arte, Korrika kantarik?

- a. Betagarrik.
- b. Mikel Laboak.
- c. Ken Zazpik.

K

Non ez da inoiz bukatu
Korrika?

- a. Gasteizen.
- b. Donibane Garazin.
- c. Baionan.

K

Nondik nora joango da
aurtengo Korrika?

- a. Otxandiotik Iruñera.
- b. Urepeletik Bilbora.
- c. Amurriotik Iruñera.

K

Zenbatgarren Korrika da
aurtengoa?

- a. Hogeigarrena.
- b. Hamaikagarrena.
- c. Hemeretzigarrena.

K 1

Pantailako galderari zuzen
erantzuten badiozu, **dadoa
beriro botako duzu**; bestela,
txanda bat galduko duzu.

Erantzuna: 12. Korrikarena

K 2

Pantailako galderari zuzen
erantzuten badiozu, **dadoa
beriro botako duzu**; bestela,
txanda bat galduko duzu.

Erantzuna: Egan

K 3

Pantailako galderari zuzen
erantzuten badiozu, **dadoa
beriro botako duzu**; bestela,
txanda bat galduko duzu.

Erantzuna: Esne beltza

G

Apirilaren 9an, Korrika Iruñera iritsiko da. Nola deitzen da Iruñeko plaza famatuena?

- a. Foruen plaza.
- b. Gaztelu plaza.
- c. Estafeta plaza.

G

Korrika igaroko den ondoko herrien artean, zein dago besteak baino iparralderago?

- a. Bermeo.
- b. Donostia.
- c. Donibane Garazi.

G

Korrika Zuberoako hiriburutik igaroko da. Zer izen du hiriburu horrek?

- a. Donibane Lohizune.
- b. Maule.
- c. Donibane Garazi.

G

Korrika Altsasura mendebaldetik badator, zein herritatik etorriko da?

- a. Etxarri Aranaztik.
- b. Aguraindik.
- c. Urdiandik.

G

Korrikaren ibilbidean zehar, euskalki asko entzun ahal izango ditugu: zuberera, bizkaiera, gipuzkera... Nork egin zuen euskalkien lehenengo mapa?

- a. Etxeparek.
- b. Louis Lucien Bonapartek.
- c. Sabino Aranak.

G

Korrika igaroko den ondoko herrien artean, zein dago besteak baino ekialderago?

- a. Tafalla.
- b. Iruñea.
- c. Otsagabia.

G

Korrikak zeharkatuko dituen mendate hauen artean, zein da altuena?

- a. Herrera.
- b. Barazar.
- c. Erremendia.

Herrera (1.104 m.), Barazar (606 m.), Erremendia (1.040 m.)

G

Korrika igaroko den ondoko herrien artean, zein dago besteak baino mendebalderago ?

- a. Urduña.
- b. Santurtzi.
- c. Gasteiz.

G

Korrika igaroko den ondoko herrien artean, zein dago besteak baino hegoalderago?

- a. Bernedo.
- b. San Adrian.
- c. Tutera.

G

Zein herrialdetan hasiko da 20. Korrika?

- a. Nafarroan.
- b. Araban.
- c. Bizkaian.

G

Mapa ikusita, hauetako zein herritatik igaroko da lehenago 20. Korrika?

- a. Alesbesetik.
- b. Nabaskozetik.
- c. Erriberritik.

G

Mapa ikusita, ondoko zein herritatik ez da igaroko 20. Korrika?

- a. Lesakatik.
- b. Tuteratik.
- c. Bergaratik.

G

Korrika Barazar mendatetik igaroko da. Zein mendi ikusten da Barazartik?

- a. Anboto.
- b. Oiz.
- c. Gorbeia.

G

Korrikan, ibai asko pasatuko ditugu gainetik. Hauetako bat azkena izango da. Zein?

- a. Ezka.
- b. Ebro.
- c. Ibaizabal.

G

Korrika herri hauetatik igaroko da. Zein da altuena?

- a. Otsagabia.
- b. Abaurregaina.
- c. Otxandio.

*Otsagabia (764 m.),
Abaurregaina (1.039 m.),
Otxandio (554 m.).*

G

Pertsona famatu hauetako bat Iruñekoa da. Badakizu nor?

- a. Gorka Urbizu musikaria.
- b. Nerea Pena eskubaloï-jokalaria.
- c. Estitxu Arozena bertsolaria.

G

Zein ibairen gainetik igaroko da Korrika Lizarran?

- a. Egaren gainetik.
- b. Aturriren gainetik.
- b. Ebroren gainetik.

G

Korrika herri hauetatik igaroko da. Mapa ikusita, zein izango da azkena?

- a. Agurain.
- b. Galdakao.
- c. Arrasate.

G

Pertsona famatu hauetako bat Otxandiokoa da. Badakizu nor?

- a. Onintza Enbeita bertsolaria.
- b. Maider Unda kirolaria.
- c. Felipe Arrese Beitia idazlea.

G

Badakizu zein ibai zeharkatuko duten korrikalariek Amurriotik igarotzean?

- a. Ibaizabal.
- b. Cadagua.
- c. Nerbioi.

G

Bakiotik pasatzean, zein edari tipiko hartuko dute korrikalariek?

- a. Sagardoa.
- b. Ardoa.
- c. Txakolina.

G

Korrikak sarritan igaro dituen herri hauetako batean ez dira Sanferminak ospatzen. Badakizu non?

- a. Iruñean.
- b. Lizarran.
- c. Lesakan.

G

Korrikak bisitatuko dituen hiru herri hauen artean, zein da jendetsuena?

- a. Irun.
- b. Baiona.
- c. Barakaldo.

G

Korrikak herrialdeetako hiriburu guztiak bisitatuko ditu. Baina badakizu zein den Euskal Herriko hiriburu historikoa?

- a. Iruñea.
- b. Gasteiz.
- c. Baiona.

E

Aditz hauetatik zeinek izan dezake zerikusia korrika hitzarekin?

- A. Zelatatu.
- b. Zangotrabatu.
- c. Zikiratu.

E

Baionara joan zara Korrikara. Halako batean, "Zoaz *gibelerat!*" esan dizu batek. Zer egingo duzu?

- a. Medikuarengana joan, gibela txarto daukat eta.
- b. Atzera joan.
- c. Aurrera joan.

E

Zein hitz ez da korrikaren sinonimoa?

- a. Antxintxika.
- b. Haginka.
- c. Arrapaladan.

E

Maulera joan zara Korrikara. Halako batean, "Zoaz *aitzina!*" entzun duzu. Zer egingo duzu?

- a. Denbora-makinan sartu eta iraganera bidaiatu.
- b. Atzera joan.
- c. Aurrera joan.

E

Donapaleura joan zara Korrikara. Halako batean, "*Kasu! Kasu!*" esan dizu batek. Zer egingo duzu?

- a. Egunkaria erosiko diot.
- b. Agurtu egingo dut.
- c. Kontuz ibiliko naiz.

E

Zergatik etorri gara honen dotore Korrikara?

- a. Zuek begira gaitzazuen.
- b. Zuek begira diezaguzuen.
- c. Zuek begira gaituzuela.

E

Korrikan presaka ibiltzeagatik, diru-zorroa galdu duzu. Zorionez, dokumentazioa ez zegoen barruan. Zer esango duzu?

- a. Eskerrak horri!
- b. Gaitz erdi.
- c. Ez da makala!

E

Zu ez zara kirolaria. Zergatik joango zara Korrikara?

- a. Irakasleak joanaraziko dit.
- b. Irakasleak joanaraziko zait.
- c. Irakasleak joanaraziko nau.

E

Korrikan, batzuetan, ez da egoten batere presarik eta astiro ibiltzen gara. Ondokoetako zein ez da "astiro" hitzaren sinonimoa?

- a. Mantso.
- b. Baldar.
- c. Poliki.

E

Korrikan haritz baten azpitik pasatzen bazara, zein fruitu eror dakizuke burura?

- a. Ezkurra.
- b. Urta.
- c. Uraza.

E

Irakasleak ez du zuekin joan nahi Korrikara. Zergatik?

- a. Erreko denaren beldur delako.
- b. Erretzearen beldur delako.
- c. Erreko den beldur delako.

E

Noiz hasiko zarete entrenatzen?

- a. Korrika hasitakoan.
- b. Korrika hasi orduko.
- c. Korrika hasi heinean.

E

19. Korrikako amaiera-jaian egon zinen. Zer egin zenuen?

- a. Ez daukat egun horren goraintzirik.
- b. Ez naiz oroitzen.
- c. Ez zait gogoratzen.

E

Korrikaren azken egunean, lan egin beharko duzu eta ezin izango zara Bilbora joan. Nola esango diozu hori bizkaitar bati?

- a. Beharrean egongo naiz.
- b. Lantzean egongo naiz.
- c. Trabakuan egongo naiz.

E

Zer iruditzen zaizkizu Korrikajoko honetako galderak?

- a. Ondo deritzot.
- b. Ondo datozkit.
- c. Ondo deritzet.

E

Korrikan hogeikilometro gelditu gabe egin ondoren, zer esango duzu?

- a. Neke asko daukat.
- b. Lur jota nago.
- c. Leher eginda nago.

E

Zure ikaskidea ez zen etorri aurreko Korrikaren hasierara. Zergatik?

- a. Lanean zirauen.
- b. Lanean zirudien.
- c. Lanean ziharduen.

E

Ikasle batek ez du Korrikan parte hartu nahi, bere ustez ez dagoelako prestatuta. Zer esango diozu?

- a. Saiatu ezean, ez duzu jakingo.
- b. Saiatu ezin, ez duzu jakingo.
- c. Saiatu ez ezik, ez duzu jakingo.

E

Urte bi egon zara batere entrenatu gabe. Kilometro bat egin duzu korrika, zorabiatu zara eta... Nola amaitu da kontua?

- a. Pottoka egin duzu.
- b. Potea bota duzu.
- c. Oka egin duzu.

E

Otxandiora Korrikaren hasierara joateko, ongi legoke bizkaieraz mintzatzen jakitea. Nola lor dezakegu hori?

- a. Praktikatzen.
- b. Praktikatuz.
- c. Praktikatzean.

E

Korrika prestatzeko bileran zaudete eta batzuk futbolari buruz hitz egiten hasi dira. Zer esango diezu?

- a. Gatoz harira!
- b. Gatozen harira!
- c. Goaz harira, mesedez!

E

Goizaldean ibili zara Korrikan eta oilarra entzun duzu. Zer egin du?

- a. Kikiriki.
- b. Kokoriko.
- c. Kukurruku.

E

Nor moldatuko da hoberen herrialde guztietan korrika egiten?

- a. Euskalki guztiak dakienak.
- b. Euskalki guztiak dakizkiena.
- c. Euskalki guztiak dakizkienak.

E

Tranpati hutsa zarenez, aurreko korrikalaria aurreratzeko, lurrera bota nahi duzu gaixoa. Zer egingo diozu?

- a. Hanka-palo egingo diot.
- b. Zangotraba egingo diot.
- c. Hanka sartzea egingo diot.

E

Osatu atsotitza:

"Entzun eta isil..."

- a. ... baiezko borobil"
- b. ... gezurra dabil"
- c. ... ikusi eta ibil"

E

Osatu atsotitza:

"Mintzatzea zilarra,..."

- a. ... batzuetan beharra"
- b. ... isiltzea urrea"
- c. ... batzuetan isiltzea beharra"

E

Osatu atsotitza:

"Erositako prezioan..."

- a. ... saldu"
- b. ... erosi"
- c. ... oparitu"

E

Osatu atsotitza:

"Gogoko tokian..."

- a. ... aldaparik ez"
- b. ... errege-erreginak bezala"
- c. ... ez dago harririk"

E

Osatu atsotitza:

"Zenbat buru..."

- a. ... horrenbeste txapel"
- b. ... hainbat aburu"
- c. ... hainbeste liburu"

E

Osatu atsotitza:

"Urrutiko intxaurrak hamalau,..."

- a. ... egunez eta gau"
- b. ... hau da hau"
- c. ... gerturatu eta lau"

Z ★4

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa beriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: Ines Osinaga

Z ★5

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa beriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: 2. irudia

Z ★6

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa beriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: Lehenengo lekukoa San Telmo museoan dago.

Z ★7

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa beriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: Mezua AEK-ko arduradunek idazten dute.

Z ★8

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa beriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: 2. herria

Z

Hemendik aurrera lagun edo senide batekin euskaraz mintzatzeko apustua egin duzunez, **aurreratu 3 lauki**.



Z

Korrika azkarregi egiteagatik, isuna jarri dizute: dadoarekin **6 atera arte ezin izango duzu fitxa mugitu.**



Z

HIEROGLIFOA: zein herri zeharkatuko du Korrikak Iparraldean sartu aurretik?



Z


HIEROGLIFOA: herri hau Korrika baten abiapuntua izan zen.



Z

HIEROGLIFOA: nola egingo duzu korrika?

"..... batek bezala".



Z

HIEROGLIFOA: zenbat kilometro egingo duzu Korrikan?



Z

Korrika-kanta aingerutxoen moduan abestu duzunez, **dadoa birritan jarraian bota dezakezu txartelik hartu gabe.**



Z

Antidopin kontrola egin dizute eta argi gorria piztu da. Hartu duzunaren eragina pasatzen uzteko, **hiru aldiz geratu beharko duzu jokatu gabe.**



Z

Aste osoan, piperrik egin gabe eta anestesiarik gabe, irakaslea jasan duzunez, **zure fitxa bost lauki aurrerago eramango duzu.** Segi horrela!



Z

Korrikan, erdaraz hitz egiten harrapatu zaitugu. **Zure fitxa hamar lauki atzera eraman behar duzu, txanda galduta.**



Z

Kilometro oso bat egin duzu korrika, gelditu eta negarrik egin gabe. Balentria ospatzeko, **bota ezazu dadoa berriro, txapeldun!**



Z

Korrika-kanta abesten hasi zara eta, arraioa!, ez dakizu osorik. Kanta osoa ikasteko, **hiru aldiz jokatu gabe geratuko zara, txanda galduta.**



Z

Korrikan, behar bezala, Korrika-arropa jantzita agertu zara oinetatik burura. Horren dotore etortzeagatik, **eraman zure fitxa bost lauki aurrerago eta bota dadoa berriro.**

